

## ZERGATIK EZ? Motibazioaren inguruko saioa

### INFORMAZIO OROKORRA

<b>DATAK</b>	2016/10/21	<b>IKASGELA/ TOKIA</b>	28. gela IVAP Eusko Jaurlaritza (Lakua) Vitoria-Gasteiz
<b>IRAUPENA</b>	Hiru ordu	<b>ORDUTEGIA</b>	09:30-12:30
<b>MATRIKULA EPEA</b>	Urriaren 5era arte	<b>ONIRITZI EPEA</b>	Urriaren 13ra arte
<b>IKASLE KOPURUA</b>	15 gehienez ere	<b>HARTZAILEAK</b>	EAEko Administrazio publikoetako langileak
<b>IRAKASLEA</b>	Iñaki Lazkano	<b>MATERIALA</b>	
<b>DISEINUA</b>	GEU ELKARTEA	<b>AZPIEGITURA</b>	Ordenagailua eta arbela

### ZER LORTU NAHI DA

#### HELBURU OROKORRAK

Euskararen erabilera sozialaren inguruan hausnartzeko saioa da. Euskararen erabileraren aldeko argudioak eskaini nahi ditugu, eta aurrez aurreko elkarrizketetan euskarari eusteko teknikak baino, hausnarketarako arrazoiak eta gakoak jorratu. Eta, asmatzen badugu, parte hartzaileen euskararen aldeko jarrerak indartu.

#### HELBURU ZEHATZAK

- 1.-Euskararen erabilera sozialaren inguruko hausnarketa gune bat sortzea
- 2.-Guk, hiztun gisa, uneoro aukeratzen ditugun hizkuntza portaerek duten eraginaren inguruko gogoeta egitea.
- 3.-Euskararekiko jarrera baikorrak sustatzea.
- 4.-Euskararen errealitatearen eta etorkizunaren ikuspegi baikor bat azalaraztea

#### GAITASUNAK

Funtsean galdera hau planteatzen dugu: "Zergatik ez kokatu euskara guztion elkargunerako, komunikaziorako hizkuntza gisa?" eta galdera horri "Zergatik ez? Jakina, bai horixe!" erantzuteko konklusiora heldu nahian aritzen gara tailerrean.

Gogoeta pertsonalerako gakoak eskaintzen ditu tailerrak eta gogoeta horretan kontuan hartzeko moduko datu eta ikuspegiak aurkezten ditu. Gogoetaren ondorioek eragin sendoa eduki dezakete parte hartzaileengan eta euren aldeko jarrera sendotzeko balio izan.

## ZERGATIK EZ? Motibazioaren inguruko saioa

### PROGRAMA ETA EBALUAKETA

#### METODOLOGIA

Tailerrak azalpen fasea, zenbait talde dinamika eta balorazio tartea dauzka

Tailerraren eskema honakoa da:

- Hizkuntza aniztasuna, munduan eta gurean.
- Legezko markoa, gurean eta inguruan.
- Hizkuntza kontaktuan eta galtze prozesuak
- Euskara datuetan. Zenbat eta nolakoak gara ?
- Norberaren ibilbidea. Euskara eta ni.
- Euskararen erabiltzeko zailtasunen identifikazioa.

#### PROGRAMA

Nigan eta nire inguruan

- Etorkizunerako proposamena. Zergatik ez?
- Etxera daramaguna eta balorazioa.

#### EBALUAKETA

- Tailerraren bukaeran, parte hartzaile guztiek betetzen duten balorazio orria erabiltzen dugu tailerraren ebaluazioa egiteko.
- Orri horretan parte hartzaileek; edukien interesa, erabilitako materialen kalitatea, tailerraren eritimoa, emailearen gaitasuna eta taldearen parte hartzea bezalako aldagaiak baloratzen dituzte.

#### IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Egitasmoak euskararen sustapenean izan dezakeen eragina:
- Tailerra kolektiboa da eta zenbait momentutan parte hartzaileen iritziak kontrastatzen dira. Hala ere, gogoeta pertsonalerako material asko eskaintzen da eta horrek parte hartzaileen euskararen aldeko jarrera eta jokaera sendotzeko balio du.
- Ebaluazio fitxetan jasotako balorazioen laburpena egingo da.

#### ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

% 80ko bertaratzea, eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.

39 €

#### PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziakosailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduerata zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.